

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Zerga Ogasunak hitzarmena sinatuko du Estatuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko aldundiekin, BEZaren informazio-hornidurarako errolda komuna osatzeko

Helburua da datuak partekatzea eta eskumeneko administrazioari informazioa ematea

Asteazkena, 2019.eko otsailak 20

Foru Gobernuak gaurko bileran hartutako akordioaren bidez, Nafarroako Zerga Ogasunak Zerga Administrazioaren Estatu Administrazioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartu da, BEZaren gaineko berehalako informazio-hornidurarako errolda instrumental komuna osatzearen. Horren helburua da datuak partekatzea eta eskumeneko administrazioari informazioa banatzea.

Berehalako informazio-hornidura (BIH) zerga-administrazioen egoitza elektronikoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) erregistro-liburuak kudeatzeko sistema da, zerbitzu telematikoetara sartuz. Faktura bat egiten edo jasotzen duten edo erregistro-liburuetan jaso beharreko eragiketak egiten dituzten enpresen sistema informatikoen eta Zerga Administrazioaren sistema informatikoen arteko zuzeneko komunikazioa da.